



UDALBILTZA

UDALBILTZA PARTZUERGOA

IRAGARKIA

Udalbiltza Partzuergoak *Geuretik Sortuak* proiektuaren baitan, “sormen, ekoizpen eta hedapen” beka emateko hasierako onarpena ematea adostu du.

Sormen beka hau Udalbiltza Partzuergoak garatutako proiektu nazional baten parte da: Geuretik Sortuak. Proiektu honek euskal artisten sormena eta euskal herrietako historia eta idiosinkrasia uztartzea du helburu, elkarlan horretatik abiatutako euskarazko artea sortu eta hedatu dadin. 22-25 herrik hartuko dute parte proiektuan – deialdi honetan zehaztuko ez direnak -; eta deialdi honetara aurkeztutako artista eta proposamenen artean 22-25 hautatuko dira, bakoitzak berea ez den herrian egonaldi egiteko. Egonaldi horren ostean sortutako artelanekin, parte hartu duten herri guztiak saretuko dituen aurkezpen zirkuitu bat egingo da.

“SORMEN” BEKAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

I. XEDEA

1. Artikulua. Xedea.

Deialdi honen helburua euskal kulturgileei kultur sorkuntzarako beka eskatzeko eta emateko prozedura arautzea da, horretarako, lehiaketa erregimena ezarriz.

Kultur sorkuntza bezala ulertuko da artistaren imajinaziotik eratorritako obra bat, zeina literatura obra, antzerki obra edota zinema obra izan daitekeen. Hau da, bekadunak izango diren proiektuek ondorengo izaera izan beharko dute: eleberri



UDALBILTZA

laburra/ipuina, antzerki obra edo film laburra. Eleberri laburrak edo ipuinak 20 orrialde gutxienez eta 40 gehienez eduki beharko ditu; film laburrak 5 minutu gutxienez eta 20 minutu gehienez iraun beharko du. Eleberri labur guztiekin, liburu oso bat argitaratuko da ondoren, horretarako 2021ean zehar liburu argitaletxeentzako deialdi bat ere zabalduko du Udalbiltza Partzuergoak. Film labur guztiekin film oso bat ekoiztuko da, horretarako 2021ean zehar film ekoizleentzako deialdi bat ere zabalduko du Udalbiltza Partzuergoak.

Sortze-lan hauen xedea euskarazko artelana sortzea izango da. Horretarako, kulturgileek esleitutako herrietan (beti ere bizi diren herritik at) egonaldiak egingo dituzte (3 aste inguru), herritarrekin sormen prozesua partekatze eta proiektua landu ahal izateko. Esleitutako herrietan oinarritutako istorioak izatea lehenetsiko da.

Ondoren, antzerki lan guztien emanaldi bana, liburu osoaren aurkezpen bana eta film osoaren aurkezpen bana egingo dira proiektuan parte hartuko duten herri bakoitzean (22-25 herri). Liburu aurkezpenean eta filmaren aurkezpenean, gutxienez sortzaile edo egileren baten parte hartzea bermatuko da aurkezpen guztietan. Aurkezpen edo emanaldi horietaz aparte, Udalbiltza Partzuergoak aparteko emanaldi eta aurkezpenak eskaini ahal izango ditu deialdi honetan adostutako baldintzetan.

2. Artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru-laguntza hauek ematerakoan, eta onuraduna eta erakunde emailea elkarrekin lotuko dituen harreman juridikoa finkatzerakoan, oinarri hauek eta diru-laguntzak ematen direnean indarrean diren arauak bete beharko dira:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003-11-18koa)
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Arautegia onartzen duena.



UDALBILTZA

3. Artikulua. Onuradunak.

Beka hau, kultur eremuren batean diharduten edo hasi nahi duten pertsona fisikoek lor dezakete; betiere Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoan erroldatutako sortzaileak badira (gutxienez 2 urte).

Bestalde, sortzaileak norbanakoak edo taldeak izan daitezke. Taldeetan aurkeztuz gero, pertsona bakarra izendatu beharko da taldeko ordezkari bezala.

Horrez gain, eskatzaileak nahitaez egiaztatu beharko du diru-laguntzak eskatzeko datan 16 urteko adina betea izatea.

Onuradunen artean erakunde emaileak emakumeen eta gizonen arteko % 40-60ko oreka egotea bermatuko du, betiere aurkeztutako eskaerek parekidetasun hori bermatzea ahalbidetzen badute; hau da, ahal den heinean aurkeztutako eskaeretatik onuradunen genero parekidetasuna bermatzea erakunde emailearen helburuetako bat izango da. Antzerkigintza eta zinemagintzan zuzendariaren sexuari erreparatuko zaio; eleberrigintzan, ordea, idazlearenari.

Onuradunak ezingo dira ondorengo egoeretan egon:

- a) Epai irmoaren bidez diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzera kondenatuak izatea.
- b) Konkurtsoa aitortzeko eskatua izatea, edozein prozeduratan kaudimengabe aitortuak egotea, konkurtsoan aitortuak egotea —non eta bertan hitzarmen batek efikazia bereganatu ez duen—, interbentzio judizial bati lotuak egotea edo Konkurtsoen Legearen arabera ezgaituak egotea, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako ezgaitasun-epea bukatuta egon gabe.
- c) Administrazioarekin eginiko edozein kontraturen deuseztapen irmoa eragin izatea, horren kausaren errudun deklaratuak izan badira.



UDALBILTZA

- d) Nazioaren Gobernuko kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goikarguen interes-gatazkak arautzeko apirilaren 10eko 5/2006 Legeak eta Administrazio Publikoaren Zerbitzura Lanean ari diren Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak araututako kasuetakoren batean dagoen pertsona fisikoa, merkataritzako sozietateen administratzailea edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari direnak, edota Hauteskunderen Erregimen Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak araututako hauteskunderen karguetako edozein izatea, lege horretan edo arlo horiek arautzen dituen araudi autonomikoan ezarritako terminoetan.
- e) Egunean ez egotea indarrean dauden xedapenek ezarritako obligazio fiskalak eta Segurantza Sozialarekikoak betetzeari dagokionez, arauetan ezarritako moduan.
- f) Arautegiz paradisu fiskaltzat kalifikaturiko herrialde edo lurralde batean izatea bere egoitza fiskala.
- g) Diru-laguntzak itzuli behar izateagatik sorturiko obligazioen pagamenduan egunera ez egotea arauetan ezarritako terminoetan
- h) Ebazpen irmo baten bitartez diru-laguntzak jasotzeko aukera galtzearekin santzionatua egotea, Diru-laguntzen Lege Orokorraren arabera edo horrela ezartzen duten beste lege batzuen arabera.
- i) Sexuzko diskriminazioa egiteagatik santzio administratiboa edo penala jasoa izatea, edo diru-laguntzak eskuratzeko debekuarekin santzionaturik egotea, Emakumezkoen eta Gizonezkoen berdintasunerako 4/2005 Lege otsailaren 18koaren arabera.
- j) Jarduera garatzeko behar den baimenean aurreikusitako baldintzak ez betetzeagatik ebazpen irmoz santzionatuak izan diren eskatzaileak.
- k) Ezingo dira onuradun izan aurretik aipatutako bateraezintasunak dituen pertsona fisiko edo juridikoen taldeak, publikoak edo pribatuak, ondasunen



UDALBILTZA

erkidegoak edo beste edozein motatako unitate ekonomikoa edo ondare bereizia, nahiz eta pertsonalitate juridikorik ez izan, baldin eta hauen baitan pertsonaren batek aurreko bateraezintasunak baditu.

II. ESKAERAK

4. Artikulua. Baztertuak.

Balioespen batzordeak eskumena izango du, kasuz kasu, diru-laguntza eskaera bat deialditik kanpo uzteko, betiere honako irizpideak kontuan izanik eta behar bezala arrazoitu ondoren.

Baztertuak izango dira, espresuki:

- Euskaraz ez direnak.
- Euskal Herriko edozein lurraldetan erroldatuta ez daudenak.
- Lanetan hizkera sexista, homofobia edota arrazista erabiltzen dutenak, zuzenean edo beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez.

Era berean, modu orokorrean deialdi honen bidez lagunduko diren ekintzetatik kanpo geratuko dira honako jarduerak:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzetako Lege Orokorraren 13.2. eta 13.3. artikuluetan aurreikusitako egoeraren batean sartuak daudenak.
- Bere izaera eta helburuengatik beste udal arlo edo erakunde autonomoren baten programa baten edo batzuen bidez bideratu behar zirenak. Dena den, horrelakoetan, dagokion erakunde edo udal arlora bideratuko da eskaera, eta horren berri emango zaio interesatuari.

5. Artikulua. Eskabideak aurkeztea.



UDALBILTZA

Laguntza horiek jaso nahi dituztenek deialdian zehaztutako ereduaren araberako eskabide-eredu ofiziala bete eta aurkeztu beharko dute.

Eskaera kopurua: Eskatzaile bakoitzari gehienez ere proiektu bakarrerako beka emango zaio.

Eskaerak Partzuergoko erregistro nagusian (Oiartzungo Udala, Doneztebe plaza, 1. 20180, Oiartzun) aurkeztu behar dira edo telematikoki aurkezteko, eskariak udalbiltza@udalbiltza.eus posta elektronikora bidali beharko dira.

Aurkeztu beharrekoak:

- Beka **eskaera** eskabide-eredu ofizialean aurkeztu beharko da. (Eranskina)
- Eskaera orriarekin batera **agiri orokor** hauek aurkeztu beharko dira:
 1. Eskatzailearen eta/edo ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia.
 2. Kontu korrontearen titularitatea egiaztatuko duen agiria.
 3. Proiektuak hala eskatzen duenean, beharrezkoak izan daitezkeen egilearen eskubideak errespetatuko direla adierazten duen ardurapeko aitortpena.
 4. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak betetzeari dagokionez egunera dagoela egiaztatzea.
 5. Ardurapeko aitortpena, beste diru-sarrera batzuk badauden eta/edo beste erakunde batzuetan diru-laguntza eskatu duen adierazten duena.
 6. Eskatzaileak onuradun izateko ezintasun egoerarik ez duela adierazten duen lekukotasuna, ziurtagiria edo, hala badagokio, ardurapeko aitortpena.
- Diruz lagundutako proiektu bakoitzak, gainera, ondorengo **dokumentu zehatzak** aurkeztu beharko ditu:



UDALBILTZA

- Eleberri motza/ipuina
 - *Curriculum Vitae*-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.
 - Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena (2 orrialde gehienez).
 - Lana herrian nola landuko lukeen azaldu eta proiektua herri ezberdinetara egokitzeko gaitasun edota malgutasuna adierazten dituen txosten laburra.

- Antzerkia
 - Zuzendariaren, taldearen edota ekipoaren *Curriculum Vitae*-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.
 - Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena.
 - Lana herrian nola landuko lukeen azaldu eta proiektua herri ezberdinetara egokitzeko gaitasun edota malgutasuna adierazten dituen txosten laburra.
 - Proposamen ekonomikoa: sorkuntza, ekoizpena eta hedapena (emanaldiko “katxeta”)
 - Aurrekontua eta finantzazio plana. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreraren atalean eskatzen duen bekaren kopurua jarri beharko da.

- Film laburra
 - Zuzendariaren, taldearen edota ekipoaren *Curriculum Vitae*-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa.
 - Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena.



UDALBILTZA

- Lana herrian nola landuko lukeen azaldu eta proiektua herri ezberdinetara egokitzeko gaitasun edota malgutasuna adierazten dituen txosten laburra.
- Aurrekontua eta finantzazio plana. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru-sarreraren atalean eskatzen duen bekaren kopurua jarri beharko da.

Modu digitalean aurkezten diren dokumentu guztiak (.pdf) formatuan aurkeztu beharko dira.

Aukeratu gabeko lanak itzuli egingo dira, eta egileek edo horien ordezkariak jaso ahal izango dituzte, epaia ezagutzera eman osteko hiru asteetan.

Horrela egin ezean apurtu edo bota egingo dira. Erakunde antolatzailea ez da arduratuko itzultzean galtzen diren lanez edota kopiez.

6. Artikulua. Eskariak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdian ezarriko da. Deialdi hori Euskal Autonomia Erkidegoko, Gipuzkoako eta Nafarroako Aldizkari Ofizialetan argitaratuko da. Epea argitalpenaren hurrengo egunean zabalduko da, epemuga 2021eko otsailaren 5a izanik, egun hori barne.

7. Artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, eskatzaileei hamar eguneko epea emango zaie, jakinarazpena jasotako egunaren biharamunetik hasita, aurkitutako hutsak



UDALBILTZA

konpon ditzaten. Emandako epea amaitutakoan akats horiek konpondu gabe baleude, eskaera bertan behera utzi dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

III. BEKA EMATEA

8. Artikulua. Aurrekontua

Diru-laguntza hauek Udalbiltza Partzuergoaren aurrekontu propioetik finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura finantzatuko diren.

9. Artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Deialdian aurreikusitako beken zenbatekoa, artelan bakoitzeko, honako hau izango da (BEZ-a eta gainerako zerga guztiak barne):

— Eleberri motz/ipuin idazkera eta aurkezpena

Idazkera bakoitzeko: 2.500 € eskainiko dira eleberri motz bakoitzaren sormenerako. 2021 amaierarako, beka honen bitartez, 10-15 lan burutuko dira.

- Dietak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak, kopuru horrez gain.
- Ostatua eta lekua, ordea, udalek ordainduko dute, diru-laguntzaren kopurutik at.
- Pertsona bakar batzenezako egonaldi gastuak estaliko dira (Beka kopurutik kanpo).



UDALBILTZA

Aurkezpen bakoitzeko: 300 € eskainiko dira aurkezpen bakoitzeko. 22-25 aurkezpen egingo dira 2022an, egile guztien artean. Liburuaren argitaletxearen esku geratuko da aurkezpen hauetako parte-hartzaileen kudeaketa.

- Garraioa (gehienez 0,29€/km) eta otorduak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.

* 2021eko udaberrian Udalbiltza Partzuergoak argitaletxeetarako deialdia argitaratuko du eleberri edo ipuin guztiak barnean biltzen dituen liburua editatzeko. Beraz, eginkizun hau, deialdi honetatik kanpo geratzen da.

— Antzerki sorkuntza eta emanaldiak

Antzerki sorkuntza bakoitzeko (sorkuntza, ekoizpena, zuzendaria, aktoreak, ekipo tekniko/artistikoa): 15.000 €-ra arte eskainiko da obra bakoitzaren sormenerako. 2022aren hasierarako 3-5 lan inguru burutuko dira beka honekin.

- Dietak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.
- Ostatuaren eta lekuaren kostua udalek ordainduko dute, diru-laguntzaren kopurutik at.
- Egonaldiaren gastuak gehienez 7 pertsonarentzat estaliko dira. (Beka kopurutik kanpo)

EMANALDIAK: 2.500 €-ra arteko emanaldiak eskainiko dira. 2022rako 22-25 emanaldi burutuko ditu talde bakoitzak.



UDALBILTZA

- Garraioa (gehienez 0,29€/km) eta otorduak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru honetaz gain.

* 2021eko udaberrian Udalbiltza Partzuergoak antzerki emanaldietarako teknika alokairuetarako deialdia argitaratuko du antzerki emanaldiei begira. Beraz, eginkizun hau, deialdi honetatik kanpo geratzen da.

— Film laburren ekoizpena eta aurkezpena

Film laburren ekoizpen bakoitzeko (sorkuntza, ekoizpena, zuzendaria, aktoreak, ekipo tekniko/artistikoa, postprodukzioa): 30.000 €-ra arte eskainiko da obra bakoitzaren ekoizpen osorako. 2021aren amaierarako, beka honen bitartez, 3-5 lan burutuko dira.

- Dietak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.
- Ostata eta lekua: Udalaren kontura ordainduko dira, betiere diru-laguntzaren kopurutik at.
- Egonaldiaren gastuak idazkera fasean 3 pertsonarentzat gehienez estaliko dira. Filmaketan, ordea, 15entzat. (Beka kopurutik kanpo)

Film laburren aurkezpenak: 300 € eskainiko zaio artista bakoitzari aurkezpen bakoitzeko. 2022rako 22-25 aurkezpen burutuko dira, egile guztien artean. Film osoaren ekoizlearen esku geratuko da aurkezpen hauetako parte-hartzaileen kudeaketa.

- Garraioa (gehienez 0,29€/km) eta otorduak ere ordainduko ditu Udalbiltza partzuergoak kopuru horretaz gain.



UDALBILTZA

* 2021eko udaberrian Udalbiltza Partzuergoak film ekoiztetxeetarako deialdia argitaratuko du film labur guztiak barnean biltzen dituen filma ekoizteko. Beraz, eginkizun hau, deialdi honetatik kanpo geratzen da.

Diru kopuru hau eman daitekeen gehienezkoa izango da, eta balioespen batzordeak erabakiko du zenbat beka eman eta zenbatekoak.

Edozein kasutan, diru-laguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango –hura bakarrik hartuta edo beste Administrazio Publikoek, edo beste Erakunde publiko eta pribatuek emaniko laguntza edo diru-laguntza batekin batuta– onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

10. Artikulua. Diru-laguntza ordaintzea.

Programa honen kontura emandako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

- 2021: Sorkuntzaren eta ekoizpenaren %40 apirilean eta %60 azaroan.
- 2022: Hedapenaren %40 otsailean eta %60 irailean.

Emandako diru-laguntza, bankuko transferentzia bitartez ordainduko da, elkarte edo pertsona onuradunak adierazitako kontu korrontean.

11. Artikulua. Beste diru-laguntzekin bateragarritasuna

Oinarri hauen arabera emandako diru-laguntzak helburu berarekin ematen diren beste diru-laguntzekin bateragarriak izango dira, beti ere gain-finantziatorik ez balego.



UDALBILTZA

IV. PROZEDURA

12. Artikulua. Balorazio irizpideak.

Aurkeztutako proiektuak edo artelana balioztatzeko erabiliko diren irizpideak honako hauek izango dira:

- a) Proiektuaren kalitate artistikoa (40 puntu).
- b) Proiektuaren egokitzapen gaitasuna, malgutasuna eta egokitzen zaion herriarekin lantzeko aukera (30 puntu)
- c) Aurrekontua, finantzazio plana eta proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa (15 puntu).
- d) Curriculum Vitae-a (15 puntu)

13. Artikulua. Prozedura

Gauzatzea eta proposamena

Eskaerak kide anitzeko balioespen batzorde batek aztertu eta ebaluatuko ditu, lehenengo baheketa bat egiteko. Batzorde mistoa honako hauek osatuko dute:

- Udalbiltzako udalgintzako 3 teknikari (bozkarik gabe)
- Udalbiltzako Kultura teknikaria
- Udalbiltzako Lehendakaria



UDALBILTZA

- Batzorde eragileko 2 kide
- Kultura munduko 3 aditu/eragile/kulturgile
- Udalbiltzako idazkaria (bozkarik gabe)

Berdinketa kasuetan Udalbiltzako Lehendakariak kalitatezko botoa izango du.

Eskaerak aztertuta, puntuazio altuena lortu duten proiektuak esleitutako udalei jakinaraziko zaizkie, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko.

Behin batzordeko eta udaletako iritzia jasota, behin behineko ebazpenaren proposamena argitaratu eta jakinaraziko zaie interesdunei, eta hamar eguneko epea emango zaie, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ditzaten.

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan zehaztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa, onuradunaren datuak eta esleitutako herriak. Diru-laguntza, hura jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiei emango zaie, eta, beraz, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartu egingo balira, behin betiko zerrendetako diru-kopuruetan aldaketak gerta daitezke.

Adierazitako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, behin behineko ebazpen horrek behin betiko izaera izango du.

Ebazpena

Behin betiko ebazpen proposamena onetsi ondoren, lehendakariak prozedura ebatziko du arrazoitutako ebazpen baten bidez. Ebazpenean gainerako eskaerak gaitzetsi direla jakinaraziko da, beste eskaerarik balego, behintzat.



UDALBILTZA

Ebazpen horretan zehaztuko da onuraduna eta esleitu zaizkion herriak.

Ebazpena erabaki eta jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, diru-laguntzen deialdia argitaratzen den egunetik hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez balego, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adieraziko du.

Ebazpenean diru-laguntzaren zenbatekoa eta ordainketa era zehaztuko dira.

V. DIRU-LAGUNTZEN KONTROLA

14. Artikulua. Onuradunen eskubideak eta betebeharrak

a) Eskubideak

Onuradunek, beren proiektua garatu edo gauzatzeko, garraio, ostatu, otordu eta dieta gastuak ordainduko dira, beka kopurutik kanpo.

Sortzaileek beren lanen ustiapenak, aurkezpenak eta emanaldiak egin ahal izango dituzte beka deialdi honek proposatzen duen zirkuitu kulturaletik kanpo behin zirkuitua amaituta, hau da 2022ko irailetik aurrera. Hala ere, kasu zehatzen batean, sortzailearen bati edo talderen bati baldintza honek arazorik ekarriko balio, bere egoera aztertuko litzateke eta baldintzak alda litezke Udalbiltza Partzuergoak egokia ikusiko balu. Azken finean deialdi honen xede nagusietako bat euskarazko sortzaileei sostengua eta bultzada ematea da eta inolaz ere ez, eragozpenik sortzea. “Geuretik sortuak” zirkuitu honetatik kanpo egiten diren lanen ustiapenengatik edo egiten diren aurkezpenengatik



UDALBILTZA

edo emanaldiengatik eskatzen diren diru kopuruak (“*katxeta*”), deialdi honetan zehaztutako diru kopuru (“*katxeta*”) berdina edo handiagoak izan ahal dira.

b) Betebeharrak

Sormen lanak egiteko ondorengo epea izango dute onuradunek, diziplina artistiko bakoitzeko, beranduenez:

1. Eleberri motza/ipuina: 2021eko irailaren 17ra arte
2. Antzerki obra: 2022ko urtarrilaren 28ra arte
3. Film laburra (postprodukzioa barne): 2021eko azaroaren 26ra arte

*Film osoaren ekoizpenerako eta liburu osoaren argitalpenerako aparteko deialdi bat egingo da.

Hedapen fasea (deialdi honetan zehaztutako emanaldiak eta aurkezpenak) 2021en amaieran eta 2022ko irailera arte burutu beharko da. Horretaz gainera, Udalbiltza Partzuergoak aurkezpen edo emanaldi gehigarriak eskatu ahal izango dizkie sortzaileei data hauen barnean edo data hauetatik kanpo. Aparteko emanaldi horiek mugatuak izango dira, eta soilik “Geuretik Sortuak” proiektuaren logika baten barruan kokatzen direnak izango dira. Udalbiltza Partzuergoak eskatutako emanaldiak eta aurkezpenak deialdi honetan zehaztutako baldintza orokorretan eta baldintza ekonomikoetan egin beharko dira.

Emandako laguntza justifikatzeko, pertsona edo talde onuradunek ondorengo betebeharrak bete beharko dituzte:

- Diru-laguntza oinarritzen den jarduera egitea.



UDALBILTZA

- Jarduera egiten ari dela frogatzea, bai, halaber, laguntza emateko edo horretaz gozatzeko bete beharreko eskakizunak eta baldintzak betetzen dituela.
- Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- Udalbiltza Partzuergoak egin beharreko konprobaziozko jarduketei trabarik ez jartzea, ez halaber, partzuergoko kontu-hartzaileari dagozkion kontrol finantzarioko jarduketei eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren legedian aurreikusitako jarduketei edota eskumen hori duten bestelako organoen jarduketei.
- Baldin eta beste administrazio edo entitate batzuetatik, publikoak nahiz pribatuak, estatukoak nahiz nazioartekoak, helburu bererako beste diru-laguntzarik jasotzen bada, organo laguntza-emaileari horren berri ematea.
- Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako edozein zirkunstantzia objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, entitate laguntza-emaileari aldaketa horren berri ematea.
- Egunera egotea indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzaren obligazioekin.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, konprobaziozko eta kontroleko jarduketak egin dakizkiekeen neurrian.
- Jasotako funtsak itzultzea, itzultze horretarako legezko arrazoiak tarteko direnean, eta, bereziki, emandako diru-laguntza osoa edo haren zati bat erabili ez denean, edo emandako laguntza diruz lagundutako proiektuan edo jardueran aurreikusitako xedeetarako bideratu ez denean.
- Diruz lagundutako proiektuko promozio jardueretarako erabiltzen diren kartel, testu eta agirietan, pertsona onuradunak *Geuretik Sortuak*-en logoa eta herrian herriko armarrria erabili beharko ditu. Aldi berean, euskara erabiliko da komunikazio horiek egiteko. Betebeharrak bete izana egiaztatu egin beharko da diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzean.



UDALBILTZA

15. Artikulua. Jarraipen eta ebaluazio batzordea

Oinarri hauen baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta proiektuaren azken emaitzen balioespena, baita, Euskal Herriko kultura eremuan izandako eragina, jarraipena eta ebaluazioa egiteko Batzorde bat sortuko da.

Jarraipen eta ebaluazio batzorde horrek, gutxienez 4 kide izango ditu, eta gehienez 6.

16. Artikulua. Diruz laguntzeko gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira deialdi honetan aurreikusten direnak, zalantzarik gabe jardueraren izaerari erantzuten diotenak, eta oinarriek ezarritako epean egikaritzen direnak. Inola ere ez dira diruz lagunduko merkatuko balioa baino kostu handiagoa duten gastuak.

17. Artikulua. Zuriketa

Modu orokorrean, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak egiaztatzeko, ondorengo egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira:

- a) Jardueraren memoria, diru-laguntza ematean jarritako baldintzak bete izana frogatuko duena, zer jarduera burutu diren eta zer emaitza lortu diren adierazita.
- b) Jardueran izandako gastu eta inbertsioak sailkatzeko zerrenda. Hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, egite data eta, hala badagokio, ordainketa data adierazi



UDALBILTZA

behar dira. Diru-laguntza aurrekontu baten arabera ematen bada, zein desbiderapen izan den adierazi behar da.

- c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru sarrera edo laguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- d) Egindako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko edo ikus-entzunezkoa.

Diru-laguntza ematen duenak behar adina froga-agiri egiaztatuko du, diru-laguntza behar bezala erabili dela agerian uzteko beharrezkoak diren guztiak. Horretarako, berak hautatutako gastu froga-agiriak bidal ditzala eskatuko dio onuradunari.

Aurrez zehaztutako egiaztagirien zerrenda, Aldizkari Ofizialetan argitaratutako deialdian adierazitako epearen barruan aurkeztuko dira.

18. Artikulua. Dirua itzultzea.

Deialdian, diru-laguntza egiaztatzeko ezarritako epea igarota, onuradunak ez baldin badu aurreko atalean aipatutako dokumentazioa aurkeztu, Udalbiltza Partzuergoak emandako diru kopurua itzultzera behartu dezake, diru-laguntza ordaindu zenetik sortutako berandutzako interesa eskatuko da (legezko interesa), zertzelada hauetako bat gertatzen denean:

- a) Jasotako funtsatzen helburua ezarritako moduan eta epean justifikatzeko obligazioa ez betetzea.
- b) Diru-laguntzak eskakizun dituen baldintzak bete gabe eskuratzea.
- c) Diru-laguntzak onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d) Diru-laguntza ematearen arrazoi den xedea ez betetzea.
- e) Organo eskudunen kontrol-jardunei uko egitea edo oztopoak jartzea.



UDALBILTZA

- f) Diru-laguntzen araudi orokorrean edota diru-laguntza bakoitzaren araudi espezifikoan aurreikusitako gainerako kasuetan.
- g) Baldin eta emandako laguntzen edo diru-laguntzen zenbatekoa, bakarka edo estatuko nahiz atzerriko administrazio publikoek edo entitate publiko nahiz pribatuek emandako beste batzuekin batera, onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino handiagoa bada, itzuli egin beharko du aurrera eramandako jardueraren kostuaz gain soberaz lortutako kopuru hori. Baldin eta, aldi berean bi administrazio publikoren edo gehiagoren diru-laguntzak izan dituelako, atal honetan aipatutako soberazko laguntza gertatzen bada, haiek emandako diru-kopuruak hainbanatuz aplikatuko da diru-itzulera.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzen edozein aldaketak berekin ekar dezake diru-laguntza erretiratzea, aldaberritzea edo haren zenbatekoa itzularaztea, organo laguntza-emailearen erabakiaren bidez.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira, eta, diru-itzultze hori ez bada adierazitako epeen barruan egiten, premiamendu- prozedura aplikagarria izango da.

19. Artikulua. Dirua itzultzeko prozedura.

Diru-laguntza emaileak eskumena izango du jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzuli behar dela ebazteko. Diru-itzultze hori onartzeko edo likidatzeko duen eskubidea lau urteren buruan preskribituko da.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, diru-laguntza emailearen eskariz, goragokok agindu baten eskariz, beste organo baten eskaera arrazoituaren



UDALBILTZA

ondorioz edo gai horren kontrol finantzarioa egiteko eskumena duen organo baten eskariz, partikularrak berak egindako salaketaren edo komunikazioaren bidez.

Prozedura tramitatzean, betiere interesatuak entzunaldirako duen eskubidea bermatu beharko da.

Emandako diru-laguntza osoa edo parte bat behar ez bezala aplikatu dela egiaztatutakoan, diru-laguntza emaileak ebazpena egingo du, itzuli beharra sortu duen kausa, zenbatekoa, itzultzeko modua eta epea arrazoituz. Aldi berean, jakinarazi beharko du diru-itzultzea epean egin ezean premiamendu-prozedura bidetik ekingo zaiola.

Aurreko atalean deskribatutako dirua itzultzeko ebazpena jakinarazitakoan, partzuergoko Kontu-hartzaileak beregain hartuko du espedientearen tramitazioa, zuzenbide publikoko diru-sarreretarako legez eta arautegiz ezarritako arauei jarraituz.

Diru-itzulketa prozedurari buruz ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epea hamabi hilabetekoa izango da, hasiera emateko erabakiaren egunetik aurrera. Baldin eta epe hori berariazko ebazpenik eman gabe igarotzen bada, prozedura iraungita geldituko da, baina, dena dela, hura amaitu arteko jarduketekin jarraitu ahalko da, eta preskripzioa ez da etentzat hartuko epe hori amaitu bitartean egindako jarduketengatik.

VI. ARGITARA EMATEA

20. Artikulua.



UDALBILTZA

Emandako diru-laguntzen zerrenda, onuradunen izen-abizenekin eta emandako kopuruarekin, Udalbiltza Partzuergoaren web orrian eta iragarki-oholean argitaratuko da, eta balegokio, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere bai.

Diru-laguntzen datuak ez dira argitaratuko, baldin eta diru-laguntzak argitaratze hori pertsona fisikoen ohorearen errespetu eta babesaren nahiz intimitate pertsonal zein familiarraren aurkakoa denean, eta diru-laguntza hori arautzen duten oinarrietan horrela jasota dagoenean.

VII. OINARRIEN INTERPRETAZIOA

21. Artikulua.

Oinarri hauen interpretazioaren harira sor daitekeen edozein zalantza Partzuergoak erabakiko du.

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorrean eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa aplikagarria izango da.

VIII. HELEGITEAK

Oinarri hauen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean deialdia onartu eta organo eskudunaren aurrean, edo zuzenean aurka egin ahal izango



UDALBILTZA

zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean. Epeak, beti ere, oinarri hauek argitaratutako egunaren biharamunetik hasiko dira zenbatzen.

Oiartzun, 2020ko abenduaren 30a.— Jabi Asurmendi Sainz, Udalbiltza partzuergoko Lehendakaria.



UDALBILTZA

LEHENENGO ERANSKINA (Deialdia)

UDALBILTZA PARTZUERGOA

“Geuretik Sortuak” sormen bekak emateko 2021. ekitaldirako deialdia.

Sormen beka hau Udalbiltza Partzuergoak garatutako proiektu nazional baten parte da: *“Geuretik Sortuak”*. Proiektu honek euskal artisten sormena eta euskal herrietako historia eta idiosinkrasia uztartzea du helburu, elkarlan horretatik abiatutako euskarazko artea sortu eta hedatu dadin. 22-25 herrik hartuko dute parte proiektuan – deialdi honetan zehaztuko ez direnak –; eta deialdi honetara aurkeztutako artista eta proposamenen artean 22-25 hautatuko dira, bakoitzak berea ez den herrian egonaldia egiteko. Egonaldi horren ostean sortutako artelanekin, parte hartu duten herri guztiak saretuko dituen aurkezpen zirkuitu bat egingo da.

Helburu horrekin, Udalbiltza Partzuergoak 2020ko ekitaldian *“Geuretik Sortuak”* proiektuaren baitan, “sormen, ekoizpen eta hedapen” bekak emateko hasierako onarpena ematea adostu zuen.

Kultur sorkuntza bezala ulertuko da artistaren imajinaziotik eratorritako obra bat, zeina literatura obra, antzerki obra, zinema obra izan daitekeen. Hau da, bekadunak izango diren proiektuek ondorengo izaera izan beharko dute: eleberri laburra/ipuina, antzerki obra edo film laburra.

Xedea, subjektu onuradunak, bazterketak, diruz lagun daitezkeen gastuak eta diru-laguntzak emateko prozedura deialdiaren oinarri espezifikoetan dago araututa.



UDALBILTZA

Aipatutako oinarriek ezartzen dute deialdiak ezarriko dituela laguntzak finantzatzeko aurrekontu-kreditu zehatzak. Aldi berean, oinarrietan ere aipatzen den moduan, eskaerak aurkezteko azken eguna 2021eko otsailaren 5a izango da, eguna barne.

Azaldutakoaren ondorioz, Udalbiltza Partzuergoko Lehendakariak, 2019ko maiatzaren 15eko erakundearen estatutuen 31. Artikuluak emandako eskumenak baliatuz, 2020ko abenduaren 30eko ebazpenaren bidez, honako hau:

EBATZI DU

Lehenengoa. *Geuretik Sortuak* proiektuko sormen bekak izeneko kultur sorkuntzarako bekak emateko urteko deialdia egitea.

Bigarrena. 2021eko partzuergoaren aurrekontutan zehaztu gabeko aurrekontu-zuzkidura jasotzea, aurrekontu-partidaren kargura:

920.226.99.05 Geuretik Sortuak.

Hirugarrena. Eskabideak aurkezteko epea 2021eko otsailaren 5ean amaituko da, deialdi hau Gipuzkoako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Laugarrena. Eskabideak Udalbiltza Partzuergoaren erregistro orokorrean aurkeztuko dira, oinarrien 5. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Bosgarrena. Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie pertsona edo erakunde interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41.1 artikulua araberak. Hori guztia,



UDALBILTZA

emandako diru-laguntzak Udalbiltza Partzuergoaren webgunean argitaratzeari kalterik egin gabe.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka, berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio deialdia onartu duen organo eskudunari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da, bi hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian. Bi kasuetan, oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

1. ERANSKINA

Geuretik Sortuak "Sorkuntza" bekak emateko 2021. ekitaldirako deialdia.

1. Deialdiaren xedea.

2021eko aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdia egiten da 2021. urtean zehar "Geuretik Sortuak sorkuntza bekak" izena duten bekak emateko. Laguntza hauen helburua euskal artisten sormena eta euskal herrietako historia eta idiosinkrasia uztartzea da.

Kultur sorkuntza bezala ulertuko da artistaren imajinaziotik eratorritako obra bat, zeina literatura obra, antzerki obra, zinema obra izan daitekeen. Hau da, bekadunak izango diren proiektuek ondorengo izaera izan beharko dute: eleberri laburra/ipuina, antzerki obra edo film laburra.



UDALBILTZA

Beken helburua herrian herriko istorio baten oinarritutako kontakizun artelana sortzea izango da, betiere euskaraz. Horretarako, kulturgileek esleitutako herrietan 3 asteko egonaldiak egingo dituzte, herriko istorioak eta pertsonak ezagutu eta proiektua landu ahal izateko.

2. Baliabide ekonomikoak

Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa zehaztu gabea da, 2021eko aurrekontu-ekitaldirako baita. Hala ere, aurrekontu-partida honen kargura izango da:

920.226.99.05 Geuretik Sortuak.

3. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epemuga 2021eko otsailaren 5a izango da, eguna barne; epe hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko da.

Parte-hartzaileek bi bide hauetako edozein erabiliz aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

- Udalbiltza Partzuergoaren erregistroan: Oiartzungo Udala, Doneztebe plaza 1. Oiartzun 20180.
- Bide elektronikoan: eskabideak partzuergoaren helbide elektronikora bidali ahal izango dira, udalbiltza@udalbiltza.eus -era.

Partzuergoak berak kudeatuko ditu diru-laguntzak.



UDALBILTZA

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabideak eskabide-ereduaren arabera aurkeztu beharko dira, eta eskabidearekin batera, oinarrien 5. artikuluan aurreikusitako agiriak aurkeztu beharko dira.

Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

5. Diru-laguntzen emakida, zenbatekoa eta muga

Diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Ondorio horietarako, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira laguntzak, haien artean hurrenkera bat ezartzeko, oinarrien 12. artikuluan ezarritako balorazio irizpideen arabera.

Aurkeztutako proiektu proposamenek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte.

6. Gauzatzeko epea eta proiektuak nola justifikatu.

Arte diziplina bakoitzeko gauzatze epemuga zehatz bat jasotzen da oinarrien 14. artikuluan:

- Eleberri motza/ipuina: 2021eko irailaren 17ra arte
- Antzerki obra: 2022ko urtarrilaren 28ra arte
- Film laburra (postprodukzioa barne): 2021eko azaroaren 26ra arte

Diruz lagundu daitezkeen gastuak zalantzarik gabe jardueraren izaerari erantzuten diotenak eta oinarriek ezarritako epean egikaritzen direnak izango dira.

Nolanahi ere, egonaldiaren dietak, ostatua, garraioa eta otorduak ere ordainduko dira, beka kopurutik at.



UDALBILTZA

Proiektua eta diru-laguntzaren xedea justifikatzeko, hau da, zuriketarako, proiektuaren epemugatik 3 hilabeteko epea izango dute onuradunek.

Oiartzun, 2020ko abenduaren 30a. — Lehendakaria



UDALBILTZA

BIGARREN ERANSKINA (Eskaera orria)

UDALBILTZA PARTZUERGOA

2021 URTERAKO “Geuretik Sortuak” BEKEN DEIALDIA

ESKATZAILEA

- BANAKAKO ESKATZAILEA:

- NAN:

- ERAKUNDE ESKATZAILEA:

- IFK-IFZ:

- ERAKUNDEAREN HELBIDEA:

- HERRIA:



UDALBILTZA

- TELEFONOA:

ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA

- IZEN ABIZENAK:

- KARGUA:

- NAN:

- HELBIDEA:

- HERRIA:

- PROBINTZIA:

- TELEFONOA:

BANKETXEA



UDALBILTZA

- BANKETXEA:

- KONTU KORRONTEAREN ZKIA.:

Goian adierazten diren datuak dituen pertsonak ondokoa **ESKATZEN DU**

Ondoren zehazten den diru-laguntza eman dakiola:

Zenbatekoa (BEZ GABE/BEZ BARNE):€

Programa gauzatzeko beste diru-sarrerak:

Kontzeptua	diru-sarreraren zenbatekoa
Norberaren aportazioa	
Udalbiltza partzuergoa	
Beste Erakundeak	
GUZTIRA	



UDALBILTZA

KONPROMISOA

Honen bitartez, sinatzaileak parte hartzen duen moduan eta eskaria aurkezten duen deialdiko diru-laguntza jasoz gero, deialdian finkatutako baldintzak eta eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du sinatzaileak, baita, oinarri horiek betetzen ez baditu, jasotako zenbatekoa itzultzekoa ere.

BAIMENA

Honen bitartez, sinatzaileak baimena ematen du:

- ∞ Udalbiltza partzuergoak deialdi honetan ezarritako baldintzen datuak egiaztatze, datu horiek Partzuergoaren esku daudenean.
- ∞ Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek, estatukoak nahiz erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa eman behar dute, aurreko jardunak burutzeko.

ESKATZAILEAREN SINADURA

Oiartzun, 2021ekorena.



UDALBILTZA